



HOZKAILUKO JANARIAK BOTATZEN

Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukia:

Arloa: Gizarte-zientziak. 1. blokea: Eduki komunak;

2. blokea: Gure mundua; 3. blokea: Gizartean bizi.

Arloa: Hizkuntza eta literatura. 1. blokea: Ahozko komunikazioa: hitz egin eta entzun.

Arloa: Matematika. 1. blokea: Matematikako prozesuak, metodoak eta jarrerak; 3. blokea: Neurriak; 5. blokea: Estatistikak eta probabilitatea.

Arloa: Gizartearen eta herritarren balioak. 2. blokea: Ulermena eta errespetua gizakion arteko harremanetan; 3. blokea: Elkarbizitza eta gizarte-balioak.

Behariko dugun materiala:

Botatzen den janariari buruzko datuak eta ikerketarako txantiloia (Eranskina).

Hezitzailearentzako oharra:

- Prestatu botatzen dugun janariari buruzko eranskina.
- Jarduera honen helburua ez da ikasle bakoitzaren etxean astebetean zehazki zenbat janari botatzen duten neurtzea, baizik eta janaria alferrik botatzearen errealitatera hurbiltzea, eta ikerketan lortutako emaitzetan oinarrituz gogoeta egitea.

Garapena:

1. fasea: Ba al zenekien?

- Proiektatu botatzen ditugun elikagaiei buruzko datuak (Eranskina) eta denen artean komentatu. Hausnarketa bultzatu, honelako galderak eginez:
 - Zer iruditzen zaizue harrigarriena? Zergatik?
 - Zeintzuk dira janari gehien botatzen dutenak?
 - European elikagai gehien botatzen dituzten herrialdeetan zazpigarrena da Espainia. Zer iruditzen zaizue hori? Zenbat tona janari botatzen ditugu?
 - Konturatzen al zarete ehuneko horiek gurekin zerikusia daukatela?



2. fasea: *Jêr dezagun*

- Azaldu jarduera zertan datzan: eman haur bakoitzari Ikerketarako txantilo bat (Eranskina), eta, denen artean, errepasatu txantiloia-aren edukia, ziurtatzeko denek ulertu dutela zer egin behar duten: astebetean, paperean idatzi beharko dute zenbat elikagai bota dituzten beren etxean zakarrontzira, eta zergatia ere adierazi beharko dute (kadukatu egin direlako, hozkailuan ahaztuta gelditu direlako...).
- Oso garrantzitsua: esan neska-mutilei etxeko helduek ez dutela jakin behar ikerketa egiten ari direla, ez dezaten bat-batean haien jokabidea aldatu.

Hausnarketa:

- Astebete igarotakoan, denek beren ikerketa egin dutenean, emaitzak bateratu eta hausnarketa egin:
 - Zer-nolako elikagaiak aurkitu dituzue zakarrontzian? Frutak eta barazkiak? Latak eta kontserba-ontziak? Ogia?... Gutxi gorabehera, kontatzen joan, kontura daitezen denon artean zer eta zenbat botatzen dugun. Adibidez, datu zehatzagoak lortzearren, zenbatu zenbat fruta eta barazki ale bota dituzten guztira denen artean.
 - Elikagaiek zergatik bukatu dute zaborretan? Zein izan da arrazoi nagusia? Ikerketak aztertu, eta ikusi zergati nagusirik baden.
 - Zaila iruditu al zaizue ikerketa egitea? Zergatik?
 - Etxean zaborretara bota dituzuen janarien artean zein iruditu zaizue harrigarriena?
 - Ikerketaren emaitzak denen artean aztertzean: harrigarriak iruditu al zaizkizue emaitzak? Zergatik?


Eranskina:

Botatzen ditugun elikagaien buruzko datuak:

Eguneroko eskandalua:

http://gestion.manosunidas.org/Repositorio/Educacion/Materiales/00/02/000272/Despilfarro_Cas.pdf

-Europar urtebetean botatzen ditugun elikagaiak:



Iturria: Magrama

Jherketarako txantiloia:

EGUNA	BOTATAKO ELIKAGAIAK	ZERGATIA (*)
Astelehena		
Asteartea		
Asteazkena		
Osteguna		
Ostirala		
Larunbata		
Igandea		

(*) Zergatia: **A** Kadukatu egin da. **B** Ireki egin genuen, ahaztuta utzi genuen, eta hondatu egin zen. **C** Plateretik zuzenean zakarrontzira bota genuen.